

berriak Triforio -tik



araba
álava

Santa Mariak 11.000 ikasle inguru hartu zituen 2018an

Santa Maria Katedrala Fundazioak, besteren artean, eskola-ingurunean ondarea jendarteratzeko egiten du lan. Gasteizko Udalaren Hezkuntza Zerbitzuko Heziketa Programen Unitatearekin elkarlanean, hiriko ikasleek Santa Maria bisitatzeko eta eraikina ikusteko ekimen bat abiatzen da urtero, tenpluaren nahiz hiria beraren historiara, arkeologiara, artera eta arkitektura hurbildu daitezten.

2018an, berrogeita hamar ikastetxe baino gehiagotako 5.600 ikasle gasteiztar hurbildu ziren katedralera. Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik bosgarren mailara bitartean daudenek bisita txiki bat eta lantegi bat konbinatzen dituen modalitatean hartu zuten parte. Iaz, 4.000 ikasle inguruk egin zuten aukera horren alde, hobeto egokitzen baitzaio beren adinari.

1.102 ikaslek egin zuten bisita ingelesez; 185ek frantsesez; 83k alemanez, eta 20k italieraz

Bestalde, Lehen Hezkuntzako seigarren mailatik gorakoak ibilbide gidatu osoa egiteko gai dira dagoeneko. Hizkuntzei dagokienez, euskara gailendu zitzaion gaztelaniari: 10etik 7k hautatu zuten hizkuntza hori.

Zentzuzkoa denez, hiriko ikasleak ez dira bisitan etortzen zaizkigun bakarrak. Truke-programetako ikasleek edota ibilaldien helmugatzat Gasteiz hautatzen dutenek ere Santa Mariako ibilbidea egitea daukate beren planetan jasota; zehazki, horrelako 5.300 ikasle izan ziren 2018an. Hurbiltasunaren arabera,

Arabako gainerako herrietatik, Bizkaitik, Gipuzkoatik, Kantabriatik eta Nafarroatik etorritakoak gailendu ziren, baina, beste probintzia batzuen artean, Cadizeko, Madrileko edo Valentziako bisitariak ere izan genituen. Nazioarteko atala ere ez da batere eskasa: 1.102 ikaslek egin zuten bisita ingelesez; 185ek frantsesez; 83k alemanez, eta 20k italieraz.



FITUR, tenpluaren erakusleih

2019 honetan, aitzakia ugari egongo da Gasteizera eta Arabara etortzeko. Zenbait kirol-ekimen egongo dira, eta horietako batzuk nazioartekoak izango dira; hala nola, saskibaloiko Final Four delakoa, edo Ironman, hirira urtero mundu osoko kirolariak ekartzen dituen triatloia. Askotariko jaialdiekin batera, ekitaldi horiek izan dira Fitur turismo-azokaren protagonistak, zeina Madril en egin zen urtarilaren amaieran. Han, bere txokoa izan zuen Santa Maria katedralak, eta standera hurbildu ziren guztien interesa piztu zuen berriro ere; izan ere, Arabako hiriburuko erakar gune turistikoko nagusia izaten jarraitzen du.





Katedralaren aterpetxeak 11.200 ostatu-gau baino gehiagorekin itxi zuen 2018a

Hirira milaka bisitari erakarriko dituzten ekitaldiz josita hasi berri den urte honetan, 2018ko balantzea egin du Katedralaren aterpetxeak, eta azken urteotako zifrak berretsi direla egiaztatu du. 2012aren amaieran ireki zen aterpetxea, hiriko hirigune historikoko establezimendu enblematiko bihur zedin, eta hasieratik egon da batez ere gazteei eta erromesei bideratuta. Bada, sei urte bete ditu, oso okupazio-datu onekin.

2018an, 11.285 ostatu-gau erregistratu ziren, eta martxoa (Aste Santua), maiatza, ekaina, uztaila, abuztua, iraila eta urria jarri ziren besteen gaitetik. Jatorriaren arabera, Bizkaiko eta Gipuzkoako herrikideak nabarmendu ziren, gure apopilo fidelenak izaki, 3.367 gau igaro baitzituten bertan. Horien atzetik, madrildarrak (1.330) eta katalanak (1.096) datoz. Atzerriko turistei dagokienez, dagoeneko ohikoak diren bisitari frantziarrak nagusitu ziren (866).

Familia-bisitak

Familiei bideratutako hurengo bisitak otsailaren 9an (17:30ean, euskaraz) eta otsailaren 23an (17:45ean, gaztelaniaz) izango dira, larunbatak biak. Bisitetan, txikienen mintzairari egokitutako diskurtsoa erabiltzen da, arazorik gabe ulertu eta gozatu ahal izan dezaten ibilbide osoaz.



Katedraleko txanponak

Santa Maria katedraleko indusketetan, 382 txanpon agertu dira guztira. Zaharrena AE3 humus Konstantinara izan da, txanpon erromatarra. Bada, kontserbazio-egoera kaskarrean dago, eta kio IV. mendekoa da. Halaber, Suleimanen dirham bat agertu da, Suleiman emir omeiatarren agintaldian kio 715-717 urteen artean egindako txanpon arabiarra. Horrek ez du esan nahi, ordea, Araban ohikoa zenik txanponekin ordaintzea, inondik inora.

X. mendearen bigarren erdialdean, gutxika-gutxika, trukea uzten hasi ziren, eta, artean txanponik ez edukitzea posiblea bazen ere, balioa neurtzeko erabiliko zen, benetan produktuekin ordaindu arren. XII. mendean, txanponak erabiltzen zituen merkataritza sustatu zuen Donejakue bideak. Hala ere, nolabaiteko indarra zuten merkatariei, hiriei eta merkataritza-jardueri loturik zeuden oraindik, eta, beraz, gutxienek ziren. Merkataritza-akordio eta salerosketa txikietan, trukea erabiltzen jarraitzen zuten.



Gehiago jakiteko, J.I. San Vicenteren "Trukea, kontu-unitateak eta txanpon-zirkulazioa Gasteiz sortu aurreko etapan" kapitulua begiratu daiteke Hiri baten arkeologia eta historia. Gasteizen jatorria izeneko liburuan (A. Azkarate, J.L. Solaun).